



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZAK EMATEKO 2024ko OINARRIAK ETA DEIALDIA (24-26D / 2024ALOD)

-Behin betiko ebazpena eta l.ordainketa-

Alkatetzak **2024ko ekainaren 5ean emandako ebazpenaren bidez**, etxebizitzak alokatzeko 2024ko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdia egitea erabaki zuen (GAOn 2024ko ekainak 13 – 114 zk.). Deialdi horretan aurreikusi dira laguntza horiek eskuratu ahal izateko gutxieneko baldintzak.

Eskaerak aurkezteko epean 21 eskaera aurkeztu dira guztira eta instrukzio fasea amaituta, Idazkaritza Sailak dagokion txosten teknikoa egin eta jakinarazi dio Ekonomia Batzordeari. 2024ko azaroaren 4an egin zen Ekonomia Batzordeak ontzat eman zuen kudeaketaz arduratzen zen sailak egindako txosten teknikoa eta ebazpen proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen arrazoitua alkatetzari egin zion onuradun bakoitzaren zenbatekoa zehaztuz.

Dirulaguntzaren ebazpen proposamena Udalaren web orrian argitaratu zen 2024ko azaroaren 5ean interesatuei jakinaraziz, eta kasu guztietan 10 eguneko entzunaldi epea eman zitzaien egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Denbora horretan 2024ALOD0012 espedientearen titularrak ezezko proposamenaren aurrean alegazio idatzi bat aurkeztu zuen; gehiengo dirusarreran baldintza egoki betetzen duela egiaztatuz. Alegazio idatzia eta aurkeztutako dokumentazioaren balorazioa egin ondoren, baiezko erantzuna emango zaio eta dagokion dirulaguntza kopurua onartuko zaio.

Oinarrietako 13. puntuak onartutako laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela arautzen du. Lehenengo ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da, eta zenbatekoa data horretara arte egiaztatutako alokairu gastuen arabera proportzioan egingo da. Bigarren ordainketa egiteko – Dirulaguntzaren gainerako zatia dagokiona – onuradunek beharrezkoak diren egiaztapenak 2025ko urriaren 15a baino lehenago ekarri beharko dituzte.

Laguntzaren ordainketak Udalaren 2024ko aurrekontuaren «Alokairu laguntzak/Ayudas alquiler» izeneko diru partidaren kontura finantzatuko da: 1.1100.480.152.30.02.2024.

Behin behineko ebazpena onetsi ondoren, eta, eskumenari dagokionez, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan oinarrituta, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Azpeitiko Udalaren alkatea, **ERABAKI DUT**:

Lehena: Ematea eta lehen ordainketa egitea l.eranskinean jasotako taulan zerrendatzen diren eskatzaileei bertan adierazitako kopuruak, Azpeitian etxebizitza alokatzeko deialdiaren 2024 ekitaldirako dirulaguntza deialdiaren baitan.

1 ERANSKINA

Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak 2024 (S-12)
Deialdia: (2024ko ekainak 13ko GAOan argitaratuak 114 zk.)



Azpeitiko Udala

-BEHIN BETIKO EBAZPENA-								
Zb	Data	Espedientea	NAN	Onartua	Onartutako laguntza	1.ord.	2.ord.	Baja eman beharreko kopurua
4	2024/08/09	2024ALOD0004	45485149G	Bai	3.285,70 €	3.285,70 €	0,00 €	
6	2024/09/04	2024ALOD0006	15379081Q	Bai	2.283,53 €	2.283,53 €	0,00 €	
8	2024/09/12	*2024ALOD0008	72524560V	Bai	3.570,00 €	0,00 €	3.570,00 €	
9	2024/09/06	*2024ALOD0009	44335925K	Bai	3.840,00 €	0,00 €	3.840,00 €	
10	2024/09/16	*2024ALOD0010	72599388A	Bai	3.354,00 €	0,00 €	3.354,00 €	
11	2024/09/18	2024ALOD0011	15085882K	Bai	4.560,00 €	4.560,00 €	0,00 €	
12	2024/09/18	2024ALOD0012	72556858T	Bai	708,75 €	708,75 €	0,00 €	
13	2024/09/19	2024ALOD0013	15090097G	Bai	300,00 €	300,00 €	0,00 €	
15	2024/09/25	2024ALOD0015	72417517Q	Bai	2.970,00 €	2.970,00 €	0,00 €	
16	2024/10/03	*2024ALOD0016	73040177C	Bai	2.460,00 €	75,00 €	2.385,00 €	
17	2024/10/10	2024ALOD0017	44333925E	Bai	4.200,00 €	3.150,00 €	1.050,00 €	
GUZTIRA:						17.332,97€	14.199,00€	

**2024ALOD espedientei, alokairu dirulaguntza BALDINTZATUTA onartu zaie; Eusko Jaurlaritzak igorritako GAZTELAGUN-EMANTZIPA alokairu dirulaguntzen ebazpenak aurkeztu behar dituzte, non alokairu laguntza hauek kobratzea dagozkien edo ez adierazten dutenak. Ebazpen hauen arabera, Udaleko dirulaguntza edo dagokion laguntza osagarria jasoko dute.*

Bigarrena: Ezeztea 2. eranskinean jasotako taulan zerrendatzen diren eskatzaileei bertan adierazitako dirulaguntzak, Azpeitian etxebizitza alokatzeko deialdiaren 2024 ekitaldirako dirulaguntza deialdiaren baitan.



Azpeitiko Udala

2 ERANSKINA
Azpeitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak 2024 (S-12)
Deialdia: (2024ko ekainak 13ko GAOan argitaratuak 114 zk.)

-BEHIN BETIKO EBAZPEN-A-

Zb	Data	Espedientea	NAN	Onartua	Onartutako laguntza	1.ord.	2.ord.
1	2024/06/18	2024ALOD0001	44345645N	Ez		Gaztelagun dirulaguntza dagokio; Udal dirulaguntza osagarria ez	
2	2024/06/24	2024ALOD0002	X6984844C	Ez		Banandu baldintzak ez ditu betetzen	
3	2024/07/29	2024ALOD0003	20895536J	Ez		Gaztelagun-Emantzipa dirulaguntza dagokio; Udal dirulaguntza osagarria ez	
5	2024/08/14	2024ALOD0005	72469712R	Ez		Banandu baldintzak ez ditu betetzen	
7	2024/09/05	2024ALOD0007	72438404L	Ez		Banandu baldintzak ez ditu betetzen	
14	2024/09/23	2024ALOD0014	44331025C	Ez		Gehiengo dirusarrerak gainditzen ditu	
18	2024/10/10	2024ALOD0018	44335351E	Ez		Gaztelagun-Emantzipa dirulaguntza dagokio; Udal dirulaguntza osagarria ez	
19	2024/10/11	2024ALOD0019	73031940V	Ez		Gaztelagun-Emantzipa dirulaguntza dagokio; Udal dirulaguntza osagarria ez	
20	2024/10/14	2024ALOD0020	79595920P	Ez		Emantzipa dirulaguntza dagokio; Udal dirulaguntza osagarria ez	
21	2024/10/21	2024ALOD0021	44157051H	Ez		Epez kanpo auzkeztu du eskaera	

Hirugarrena: Alkatetzaren erabaki hau Udalaren web orrian argitaratuko da eta baita Estatuko dirulaguntzen Datu Basean ere. Modu berean, jakinarazpena egingo zaio laguntzaren eskatzaile bakoitzari.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeokoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Azpeitian, 2024ko abenduaren 5ean.

Nagore

